

Gazteak operara hurbiltzeko aldarria

Mezzosopranoak operaren inguruan dauden usteak apurtu nahi ditu, eta gaur egun eskuragarria dela nabarmendu nahi du

Itxaro Mentxaka Bengoetxea



Itxaro Mentxaka Bengoetxea (Lekeitio, 1964) mezzosopranoa da. Lekeitioko Azkue ikastolan ikasi zuen, eta hango Itxas Soinua abesbatzan ibili zen, lehenengo Joseba Ortuondo ondarrutarraren zuzendaritzapean eta ostean Gorka Sierra bilbotarrarenean. Bai batarekin, bai bestearekin, bakarkako saioak egiten zituen, eta Gernikako institutuan Batxilergo ikasketak egin eta Euskaltzaindiako B titulua atera ostean, kantu ikasketak hasi zituen, lehenengo Bilbon Fina Folco irakaslearekin, eta gero Bordeleko kontserbatorioan Monique Florencerekin. Karrera egin ostean, Valentziara joan zen ikastera Carmen Martinez Lluna Eta Enerina LLoris sopranoen aginduetara, eta harrezkeroztik operako abeslari profesionala da.





Bilboko LBEn, Opera Lagunen Bilboko Elkartean, debutatu zuen 1987-88 bueltan. Manon Lescaut-en musikoaren papera egin zuen, "paper txiki bat", mezzosopranoak argitu duenez. Hurrengo urtean, Leonardo Baladaren Cristóbal Colonen abestu zuen Bartzelonako El Liceu antzerkian. Hortik aurrera, makina bat agertoki zapaldu ditu, besteak beste, Donostia, Bilbo, Sevilla, Malaga, Coruña, Valentzia, Santiago de Compostela eta Granadakoak, eta Pereladako Nazioarteko Jaialdian ere parte hartu izan du, Gironan. "Dena dela, nire karrera, batez ere, Lizeoan eta Teatro Realean izan da", adierazi du.

Karrera zabala egin du Mentxakak, eta dio adinarekin "lasaiago" dabilela. Irakasle ere bada. "Ikasle batzuk badauzkat. Ez nintzateke %100 horretara dedikatuko, baina gustatzen zait irakastea". Horrez gain, hamar emakume koitu bat gidatzen du: "Koruko neskak", Itxas Soinuako abeslari ohiak. Funtzioetan dagoenean, baina, lanean guztiz murgiltzen da. "Bakarrik horretxetara egoten naiz, erabat dedikatuta, eta neure burua zaintzen eta ez hozten ahalegintzen", esan du.

Ea gutxika-gutxika ikasleei mundu hau erakusten diegun

Operaren egoerari buruz galdetuta, "momentuz ondo" dagoela dio. Hori bai: onartzen du agertoki kopuruarekin alderatuta, abeslari asko daudela. Halaber dio publikoaren adina "nahikoa altua" dela. Haatik, baikor da. "Ea gutxika-gutxika ikasleei mundu hau erakusten diegun". Bere ustez, ez du laguntzen operaren inguruan dagoen usteari. "Opera beti hartu izan da gauza klasista eta garesti modura. Gaur egungo gazteek, oster, 25-30 euro ordaintzen dituzte, hau da, beste edozein kontzertutan gastatu daitekeen beste, eta diru horrekin ikuskizun itzela daukazu: orkestra bat zuzenean, korua, solistak eta aktoreak. Mauka da".

Lekeitiarrak parte hartu izan duen hainbat opera grabatuta daude, tartean, Julio Cesar, Cyrano de Bergerac, La traviata, Boris godounov, DQ, Carmen eta Katia kabanova.

Sariei dagokienez, Bilboko "5 bilbaínos" saria eskuratuta dauka, baina beretzat errekonozimendurik garrantzitsuen, 2019an herriko jaietako txupinera izendatu zutenekoa da.

Mentxaka Lekeitioko elizako Cavaillé-Coll organoa konpontzeko sortutako taldeko lehendakaria da.

